

txikia

IKUSGARRI

1. saria

Zebra-arrainaren garuneko muga
hematoentzefaliko (x20)

Jennifer Peters eta Michael Taylor
(Tennessee, AEB)



Biziaren edertasuna eta konplexutasuna mikroskopiaren laguntzarekin bilatzen duten argazkiek parte hartzen dute Nikon Small World lehiaketan. Artearen eta zientziaren artean dauden irudiak dira.

Hain zuzen ere zientziatik asko du aurtengo irabazleak. Zebra-arrain


bizi baten muga hematoentzefalikoaren erakusten du. Gakoa da muga hori funtzio neurologiko eta gaixotasun askoren kasuan. St. Jude Children's Research Hospital-eko Jennifer Peters-ek eta Michael Taylor-ek zebra-arrain transgeniko bat garatu dute egitura horren garapena behatu eta ikertu ahal izateko. Hiru dimentsiotan

argazkiak atera dizkiote, eta argazki bakarrean elkartu, sakoneraren arabera kolore desberdinak emanez.

Irabazleaz gain, lehiaketan parte hartu duten beste argazki batzuk dituzue hurrengo orrietan. Eta webgunean gehiago.




SAREAN+




Publikoaren saria


Zelula linfatikoak eta fibroblastoak,
3Dko fibrina-gelean (x200)


Esra Guc (Lausanne, Suitza)





Erradiolarioen eskeletuak (x120)
Ralph Grimm (Queensland, Australia)





Ofiura (x8)

Alvaro Migotto (Sao Paulo, Brasil)



Kakoxenita minerala (x18)
Honorio Cócera-La Parra (Valentzia, Spainia)





Molossus rufu saguzarraren enbrioiak
Dorit Hockman (Cambridge, Erresuma Batua)



Drosophila larva
Dr. Andrew Woolley (Indiana, AEB)





Myrmica sp. eta *Formica* sp. inurriak (x2,5)
Geir Drange (Borgen, Norvegia)

